



eurored del deporte

## V. EUROKIROLA 2006

### **JARDUEREN DESKRIBAPENA**

Jarduera guztiak taldeka egingo dira, lauko taldeetan, bi mutil eta bi neskaz osatuak; taldeak ordezkariak guztien artean egingo dira urriaren 12ko gauean.

1. Surfean lehenik oinarrizko azalpenak emango dira, neoprenoa nola jantzi eta taula nola erabili, gero Hendaiako hondartzako olatuetan murgiltzeko. Zortziko taldeak izango dira, eta bakoitzak monitore bat izango du, Bidassoa Surf Club-ak jarritakoa.
2. Arraunketan lehiaketa txiki bat egingo da. Lauko taldeak egingo dira, Hondarribia Arraun Elkarteke patroia bana izango dute lagun, eta hark azalduko die batela nola eraman; bakoitzak hiru tandako hiru txanda egingo ditu.
3. Orientazioan ibilbide erraz bat egingo da, alde aurretik ibilbide orriaren berri emanda eta iparrorratza nola erabili behar den azalduta. Irungo Erlaitz mendian izango da, Irungo Mendizaleak taldeko monitoreen laguntzarekin.

Ostiral eta larunbat arratsaldean 20 laguneko taldeetan banatu eta bi bisitaldi hauek egingo dira: Hondarribiko alde zaharra (bolborategia eta harresiak) eta Irungo Oiaso erromatar museoa eta Santa Elena ermita.

Ondoren, aterpetxearen ingurua bisitatzeko aukera egongo da, dela Abbadia gaztelua, dela hondartzako pasealekua, dela Sokoburu ingurua.

Urriaren 15ean, 12:00etan, agurreko ekitaldi txiki bat egingo da, eta opariak banatuko dira, gero bazkaldu eta nor bere herrira itzultzeko.

### **OHARRA**

Partaideei eskatzen zaie honako hauek eramateko: NA, lizentziaren kopia, eta gizarte segurantzako txartela edo antzekoa. Jardueretarako material hau beharko da:

- ⇒ surferako bainujantzia eta hondartzako toalla
- ⇒ arraunketarako short-a edo bainujantzia, hondartzako toalla, kamiseta eta uretako zandaliak
- ⇒ orientaziorako zira, mendiko botak edo oinetakoak, motxila txikia.
- ⇒ aterpetxean badaude maindireak eta mantak, baina nor bere toalla ekarri behar du.



eurored del deporte

**Antolakuntza teknikoa:**

Bidasoa Txingudi Mugaz gaindiko Partzuergoa

Iparralde etorbidea z/g

Kostorbe eraikina

20304 Irun

tel.: 943.63.30.76

fax: 943.63.39.63

Harremanetarako: Pilar Fuertes

Mugikorra: 659 453 246

[pfuertes@bidasoa-activa.com](mailto:pfuertes@bidasoa-activa.com)